

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren behin betiko onarpena

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskalaren hasierako onarpenerako erabakia, udalbatzak 2025eko urriaren 14an hartutakoa, jendaurrean jartzeko epea igaro da (2025eko azaroaren 12ko ALHAO, 129 zk.), eta aldaketa horren barruan inolako erreklamaziorik aurkeztu ez denez, erabaki hori behin betiko bihurtu da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bateginari buruzko irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19. artikuluan aurreikusitakoa betez, behin betiko bihurtu den erabakia osorik argitaratzen da, argitaratzen denetik aurrera aplikatuz.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, 2 hila-beteko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluekin bat etorritik.

Hala ere, egoki irizitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Erdoñanan, 2025eko abenduaren 19an

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO

ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Udal honek, Arabako Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta tributuari buruzko Foru Arau berezian aurreikusitakoarekin bat etorriz, ondasun higiezinaren gaineko zerga exijitzen du ordenantza honen arabera. Zerga horren zati da aplikatu beharreko tarifa eta bilketa-aldia jasotzen dituen eranskina.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerri osoan aplikatuko da.

II. ZERGA-EGITATEA

3. artikulua.

1. Zergaren zergapeko egitatea landa- eta hiri-ondasun higiezinaren eta ezaugarri bereziko higiezinaren gaineko eskubide hauen titulartasuna da:

- a) Ondasun higiezinaren edo horiei lotutako zerbitzu publikoen gaineko administrazio-emakida.
- b) Lurrazal-eskubide erreala.
- c) Gozamen-eskubide erreala.
- d) Jabetza-eskubidea.

2. Aurreko idatz-zatian zehaztutako zergapeko egitateetatik dagokion bat gauzatzen bada bertan ezarritako hurrenkeraren arabera, higiezina ez da loturik egongo bertan aurreikusitako gainerako modalitateekin.

3. Zerga honen ondorioetarako, landa-ondasun higiezintzat, hiri-ondasun higiezintzat eta ezaugarri bereziko ondasun higiezintzat hartuko dira ordenantza fiskal honetako 4. artikuluan halakotzat definitutakoak.

4. Higiezin bat udalerri batean baino gehiagotan kokatuta badago, zerga honen ondoreetarako ulertuko da haietako bakoitzari dagokiola udalerri horretan okupatzen duen azalera.

4. artikulua

1. Katastro-ondoreetarako soilik, ondasun higiezintzat hartzen da izaera bereko lurzattia edo lurzoru-zatia, udal-mugarte batean kokatua eta lerro poligonal batez itxia; ondorio horietarako, mugatu egiten du jabe baten edo batzuen pro indiviso jabetza-eskubidearen espazio-eremua eta, hala badagokio, eremu horretan

kokatutako eraikuntzak, jabea edozein dela ere, higiezinari dagozkion beste eskubide batzuk gorabehera.

Honako hauek ere ondasun higieztintzat hartuko dira:

a) Aprobetxamendu independentea izan dezaketen eraikinetako elementu pribatiboak, jabetza horizontalaren erregimen berezipean daudenak, bai eta elkarri lotuta dauden eta egintza-unitate batean eskuratu diren elementu pribatiboek osatzen duten multzoa ere, eta, erregelamendu bidez zehazten diren baldintzetan, titular baten erabilera eta gozamen eskusibo eta iraunkorrari atxikitako trastelekuak eta pro indiviso aparkalekuak. Baterako elementuak dagozkien higieztineei eratzikitzea, katastroko balorazioaren ondorioetarako soilik, erregelamendu bidez zehazten den moduan egingo da.

b) Artikulu honen 4. paragrafoan jasotakoak.

c) Lurrazal-eskubidearen espazio-eremua eta ondasun higieztinen gaineko edo horiei lotutako zerbitzu publikoen gaineko administrazio-emakidarena, salbu eta aurreko letretan aurreikusitako kasuak gertatzen badira.

2. Honako hauek hartuko dira hiri-ondasun higieztintzat:

a) Hiri-lurzorua, arau subsidiarioek urbanizatzeko egoki deklaraturakoa, urbanizagarria edo autonomia-legediak haren parekotzat jotakoa, Estatuko legediak lurzoru urbanizagarriari dagozkion hirigintza-ahalmenak dituelako.

Halaber, ondasun higieztin hiritartzat hartuko dira bide zolatuak edo espaloiak dituzten lurrak, baldin eta, gainera, estolderia, ur hornidura, argindar hornidura eta argiteria publikoa badituzte, eta hiri izaerako eraikuntzek okupatzen dituztenak.

Halakotzat hartuko dira nekazaritza arloko legerian xedaturakoaren kontra zatikatzen diren lurrak, baldin eta zatikapen horrek haien nekazaritzako erabilera indargabetzen badu, eta horrek ez badu haien landa-izaera aldatzen zerga honenak ez diren beste ondorio batzuetarako.

b) Hiri-eraikuntzak. Honako hauek joko dira hiri-eraikuntzat:

a') Eraikinak, eraikita dauden elementuak, kokatuta dauden lekuak, jasoak izan diren lurzoru mota eta izango duten erabilera edozein direla ere, nahiz eta eraikitze moduagatik garraiatzeko modukoak izan, eta nahiz eta kokatuta dauden lursaila eraikuntzaren jabearena ez izan, eta haiekin parekagarriak diren merkataritza- eta industria-instalazioak, hala nola dikeak, tangak eta karga-habeak.

b') Urbanizatzeko eta hobetzeko obrak, hala nola lur-berdinketak eta espazio estali gabeak erabiltzeko egiten direnak, azokarako esparruak, aire zabaleko deposituak, kirola egiteko zelaiak edo instalazioak, kaiak, aparkalekuak eta eraikuntzei erantsitako guneak halakotzat hartuta.

c') Hurrengo atalean landalur izaerakotzat beren beregi kalifikatu ez diren gainerako eraikuntzak.

Ezaugarri bereziko ondasun higieztinak barne hartzen dituen ez da hiri-lurzorutzat hartuko.

3. Landalurreko lurzorutzat hartzen da aurreko ekarpenean xedatutakoaren arabera hirikoa ez dena eta ezaugarri bereziko ondasun higiezinetan sartuta ez dagoena.

Bereziki, eta zerga honen ondorioetarako, honako hauek hartuko dira landalurreko ondasun higiezintzat:

a) Aurreko apartatuko a) letran xedatutakoaren arabera hirikotzat hartzen ez diren lurrak.

b) Landalurreko eraikuntzak, horrelakotzat landa-lurretan egonik nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako ustiapenak garatzeko ezinbestekoak diren nekazaritzako eraikin eta instalazioak hartuta.

Zerga honen ondorioetarako, ez dira inola ere eraikuntzat hartuko nekazaritza-, abeltzaintza- edo basogintza-ustategietan erabiltzen diren estalpe txikiak edo estalpeak, baldin eta eraikuntzan erabiltzen diren materialak arinak eta iraupen gutxiak direlako erabilera hauetarako bakarrik balio badute: luraren aprobetxamendu handiagoa, laboreen babesa, hutsik dauden abereen aldi baterako aterpea edo zerbitzatzen duten eta haiei atxikita dauden jardueraren berezko lanabesak eta tresnak gordetzea. Era berean, ez dira eraikuntzat hartuko, zerga honen ondorioetarako, landalurreko obren zati diren eta hobekuntza soziabilak.

4. Ezaugarri bereziko ondasun higiezinek erabilera espezializatuko multzo konplexua osatzen dute. Multzo horretan daude lurzorua, eraikinak, instalazioak eta urbanizazio- eta hobekuntza-obrak; horiek, izaera unitarioa dutenez eta funtzionamendurako behin betiko lotuta daudenez, ondasun higiezin bakar gisa eratzen dira katastro-ondorioetarako.

Ezaugarri bereziko ondasun higiezintzat hartuko dira, aurreko lerroaldearen arabera, ondoko talde hauetan biltzen direnak:

a) Energia elektrikoa eta gasa produzitzeko eta petrolioaren fintzeko erabiltzen direnak, eta zentral nuklearrak.

b) Presak, ur-jauziak eta urtegiak, ohea edo urtegia barne, ureztatzeko bakarrik direnak izan ezik.

c) Ordainpeko autobide, errepide eta tunelak.

d) Aireportuak eta merkataritza-portuak.

III. SALBUESPENAK

5. artikulua

1. Honako ondasun hauek salbuetsita egongo dira:

a) Estatuarenak, Euskal Autonomia Erkidegoarenak, Arabako Foru Aldundiarenak, udal erakundearenak edo udal erakundearenak direnak toki-erakundeak, zuzenean Defentsari, herritarren segurtasunari eta hezkuntza- eta espetze-zerbitzuei atxikita badaude.

b) Zuzenean hezkuntza-zerbitzuei atxikita dauden unibertsitate publikoen jabetzakoak direnak.

c) Errepideak, bideak eta gainerako lurreko bideak, betiere aprobetxamendu publikokoak eta doakoak badira.

d) Kuadrilla, udalerri, ermandade eta administrazio-batzarren jabetzakoak direnak, zerbitzu edo erabilera publikoa dutenean. Goian xedatutakoa ez da aplikatuko eraginpean hartutako ondasunen edo zerbitzu publikoaren gainean administrazio-emakida bat edo zeharkako beste kudeaketa-moduren bat dagoenean, salbu eta titularra irabazi-asmorik gabeko elkarte bat denean eta aipatutako erakundearekin lankidetzajarduerak egiten ditunean, bertako organo eskudunak udal-interesekotzat jo baditu.

Era berean, salbuetsita egongo dira erkidegoaren aprobetxamendua duten mendiak eta gainerako ondasun higiezinak eta denen eskura dauden auzo-mendiak.

e) Hazkunde moteleko espeziez landatutako titulartasun publiko edo pribatuko mendiak.

Salbuespen hori hazkunde moteleko baso-espezieei dagokie, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren espezieen izendegiarekin bat etorritik, baldin eta aprobetxamendu nagusia zura bada, eta baso-espezie horiek populatutako baso-zatia, baldin eta zuhaitzen dentsitatea espezie horri berez dagokiona edo normala bada.

Era berean, aurreko lerrokadan jaso gabeko mendiak, korporazioek, erakundeek eta partikularrek baso-berritzeak egiten dituzten finketako zati birpopulatuari dagokionez, bai eta baso-administrazioak onartutako antolamendu-proiektuen edo plan teknikoek mende zuzaritzak leheneratzen ari diren tarteei dagokienez ere. Paragrafo honetan aurreikusitako salbuespenak hamabost urteko iraupena izango du, eskaera egiten den zergaldiaren hurrengotik kontatzen hasita.

f) Eliza Katolikoarenak, Estatuak eta Egoitza Santuak 1979ko urtarrilaren 3an gai ekonomikoei buruz egindako akordioan aurreikusitakoaren arabera.

g) Katolikoak ez diren baina lege onartuta dauden konfesio-elkarteenak, Konstituzioaren 16. artikuluen arabera izenpetutako lankidetzak akordioetan ezarritakoaren arabera.

h) Gurutze Gorriarenak eta arauz zehazten diren antzeko beste erakunde batzuenak.

i) Indarrean dauden nazioarteko hitzarmenen arabera salbuespenaren xede diren higiezinak, eta elkarrekikotasun baldintzapean, atzerriko gobernuenak, ordezkaritza diplomatikora edo kontsularrera edo haren organismo ofizialetara destinatutakoak badaude.

j) Trenbideek okupatzen dituzten lurak eta lur horietan bertan kokatutako eraikinak, geltoki, biltegi edo linea horiek ustiatzeko ezinbestekoa den beste edozein zerbitzutarako erabiltzen badira.

Beraz, ez daude salbuetsita ostalaritzako establezimenduak, ikuskizunetakoak, merkataritzakoak eta aisialdikoak, ez eta enplegatuen etxebizitzetarako diren etxeak, zuzendaritzaren bulegoak eta lantegiak ere.

k) Monumentu izaera duten ondasun higiezinak (Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikuluko 2. paragrafoko a) idatz-

zatian aipatzen dira). Salbuespen hori kalifikatutako eta inbentariatutako kultura-ondasunei ere aplikatuko zaie, uztailaren 3ko 7/1990 Legean zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearen 2. artikuluko 2. paragrafoko b) idatz-zatian aipatutako monumentu-multzoaren zati diren ondasun higiezinak ere salbuetsita egongo dira. Uztailaren 3ko 7/1990 Legean ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta babes bereziko erregimenean sartuta dauden higiezinak bakarrik salbuetsiko dira.

Halaber, Espainiako Ondare Historikoa osatzen duten ondasun higiezinak, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeak aipatzen dituenak, salbuetsita geratuko dira."

l) Osorik edo zati batean hezkuntza-itunaren araubideari heldutako ikastetxeek irakaskuntzarako erabiltzen dituzten ondasun higiezinak, irakaskuntza itunduari atxikitako azalerari dagokionez.

m) Tributuaren bilketaren kudeaketan efizientzia eta ekonomia arrazoiengatik, salbuetsita egongo dira 650,00 eurotik beherako oinarri ezargarria duten hiri-ondasunak. Era berean, eta arrazoi berberengatik, salbuetsita egongo dira landa-ondasunak, subjektu pasibo bakoitzarentzat udalerrian dituen landa-ondasun guztiei dagokien zerga-oinarria 1.220,00 eurotik beherakoa denean.

n) Titularrak direnak, irabazi-asmorik gabeko erakundeak, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriei buruzko uztailaren 12ko 16/2004 Foru Arauan ezarritako eran eta baldintzetan. Sozietateen gaineko zergatik salbuetsita ez dauden ustiapen ekonomikoei ez zaie salbuespena aplikatuko".

IV. SUBJEKTU PASIBOA

6. artikulua.

1. Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 33. artikuluan aipatzen diren pertsona natural eta juridikoak eta entitateak, zerga honen egitate zergagarria eratzen duen eskubidearen titulartasuna dutenean. Ezaugarri bereziko higiezin berean kontzesionario bat baino gehiago badago, kanon handiena ordaindu behar duena izango da zergadunaren ordezkoa.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeak ez du eragotziko subjektu pasiboak jasandako zerga-karga jasanarazteko duen ahalmena, zuzenbide erkideko arauen arabera. Udalek zergaren kuota likido osoa jasanaraziko diete subjektu pasibo izan gabe jabari publikoko ondasunak edo ondare-ondasunak ordain gisa erabiltzen dituztenei.

Halaber, zergadunaren ordezkoak gainerako emakidadunei jasanarazi ahal izango die haietako bakoitzak ordaindu behar dituen kanonen arabera dagokien kuotaren zatia.

V. ZERGA OINARRIA

7. artikulua.

1.- Zerga honen zerga-oinarria ondasun higiezinaren balioa izango da.

2.- Oinarri ezargarria zehazterakoan, ondasun higiezinaren balioetat horien katastroko balioa hartuko da, eta merkatuko balioa erreferentziatzen hartuta finkatuko da, baina merkatuko balioa inola ere ezingo da izan hori baino handiagoa.

8. artikulua

1.- Hiri-ondasun higiezinaren katastroko-balioa lurzoruen eta eraikinen balioek osatuko dute.

2.- Lurzoruen balioa kalkulatzeko, berari dagozkion hirigintza-inguruabarrak hartuko dira kontuan.

3.- Eraikuntzen balioa kalkulatzeko, hirigintzako eta eraikuntzako baldintzez gain, honako hauek ere hartuko dira kontuan: izaera historiko-artistikoa, erabilera edo xedea, eraikuntzen kalitatea eta antzinatea, eta eragina izan dezakeen beste edozein faktore.

9. artikulua

1.- Landalurreko ondasunen katastroko balioa luraren eta eraikuntzen balioek osatuko dute.

2.- Landa-lurren balioa luraren benetako errentak edo potentzialak erregelamenduz ezartzen den interesaren kapitalizatuz kalkulatu da, lurak ekoizpenerako duen gaitasunaren, laboreen edo aprobetxamenduen eta katastroko ezaugarrien arabera. Errenta horiek kalkulatzeko, nekazaritzako ezaugarriak homogeneoak dituen alde edo eskualde bakoitzean dauden errentamendu edo apartzeriak ikertuz lortutako datuei heldu ahal izango zaie.

Era berean, paragrafo honen ondorioetarako, kontuan hartuko dira landa-lursailetan egindako hobekuntzak, beren balioaren zati banaezin direnak, eta, hala badagokio, ekoizten hasi arte igarotako urteak; baso-produkzioak dituzten lursailen kasuan, landaketaren adina, zuhaitz-masaren egoera eta aprobetxamendu-zikloa hartuko dira kontuan.

Nolanahi ere, aprobetxamendu handiagora jotzen duten ekoizpen-baliabide arruntak erabili edo aplikatu behar diren hartuko da kontuan, baina ez ezohiko baliabideak erabili behar ote diren.

Hala ere, ustategiaren izaerak edo udalerriaren ezaugarriek benetako errentak edo potentzialak ezagutzea zailtzen dutenean, ondasunen katastroko-balioa kalkulatu ahal izango da, hobekuntza iraunkorrak eta landaketak barne, teknika-

, nekazaritza- eta ekonomia-faktoreen multzoa eta eragiten dieten beste inguruabar batzuk kontuan hartuta.

3.- Landa-eraikuntzen balioa kalkulatzeko, aurreko artikuluko 3. paragrafoan jasotako arauak aplikatuko dira, eraikuntzen izaerak ahalbidetzen duen neurrian.

10. artikulua.

Aipatutako katastro-balioak higiezinaren katastroetan dauden datuetan oinarrituta finkatzen dira. Katastroko balio horiek berrikusi, aldatu edo eguneratu ahal izango dira, kasuen arabera, 12., 13. eta 14. artikuluetan, hurrenez hurren, aurreikusitako baldintzetan.

11. artikulua

Landa- eta hiri-ondasun higiezinaren katastroak landa- eta hiri-ondasun higiezinaren datu- eta deskripzio-multzo batek osatzen ditu, eta azalerak, kokapena, mugak, laboreak edo aprobetxamenduak, kalitateak, balioak eta gainerako inguruabar fisiko, ekonomiko eta juridikoak adierazten dituzte, lurralde-jabetza ezagutarazteko eta haren alderdi eta aplikazio desberdinak definitzeko.

12. artikulua.

1.- Katastro-balioak 8. eta 9. artikuluetan araututako balorazio-irizpideen arabera finkatuko dira.

2.- Horretarako, Arabako Foru Aldundiak, aldeztu aurretik, indarreko hirigintza-xedapenetara egokitutako hiri-lurzorua mugaketa egingo du. Aurrekoa gorabehera, lurzorua izaeran aldaketarik gertatu ez den udal mugarteetan ez da mugaketa berri horren beharrik izango.

3.- Aurreko paragrafoan aipatzen diren lurzorua mugatzeko lanak egin ondoren, Arabako Foru Aldundiak balio-txostenak egingo ditu, eta bertan jasoko dira katastro-balioak finkatzeko behar diren irizpideak, balorazio-taulak eta gainerako elementuak

4.- Hiri-lurzorua mugaketa onartu ondoren, jendaurrera azalduko da 15 egunez, interesatuek egoki irizitako erreklamazioak aurkez ditzaten. Jendaurreko erakusketa udaletxeko bulegoetan egingo da, eta ALHAOn eta lurralde horretan gehien saltzen diren egunkarietan iragarriko da.

5.- Onartutako balio-ponentziak ALHAOn argitaratuko dira, bai eta udalaren ediktu bidez ere, ponentzia horien ondoriozko balio kastaletan ondorioak izan behar dituzten urtearen aurre-aurreko urtean.

6.- Txostenak argitaratzen direnetik, horietatik ateratzen diren katastro-balioak banan-banan jakinarazi beharko zaizkio subjektu pasibo bakoitzari, edo subjektu pasibo edo horretarako baimendutako pertsona agertuz, balio horiek ondorioak izan behar dituzten urtearen aurre-aurreko urtea amaitu baino lehen.

7.- Horrela finkatutako katastro-balioak zortzi urtean behin berrikusi beharko dira.

13. artikulua

1.- Foru-aldundiak aldatuko ditu katastro-balioak, bere kabuz edo udalak eskatuta, baldin eta hirigintza-plangintzak edo beste egoera batzuek agerian jartzen badute diferentzia nabarmenak daudela balio horien eta udalerrian edo udalerriko zonaren batean edo batzuetan kokatutako ondasun higiezin merkatu-balioen artean.

2.- Aldaketa horretarako, nahitaezkoa izango da balio-ponentzia berriak prestatzea, aurreko artikuluan aurreikusitako moduan, eta hiri-lurzorua berriro mugatu behar izan gabe.

3.- Txostenak egin ondoren, aurreko artikuluan adierazitako izapide eta prozedurei jarraituko zaie.

14. artikulua.

Katastro-balio horiek eguneratu ahal izango dira, Arabako Lurralde Historikoaren aurrekontu orokorreko buruzko foru-arauetan finkatzen diren koefizienteen arabera.

VI. ZERGA KUOTA**15. artikulua.**

1.- Zerga-oinarriari karga-tasa aplikatzearen emaitza izango da zerga honen kuota osoa. Kuota likidoa lortzeko, kuota osoari lege aurreikusitako hobarien zenbatekoa kenduko zaio.

2.- Karga-tasa eranskinean jasota dago.

VII. HOBARIAK**16. Artikulua***1. Irizpide orokorrak:*

Artikulu honetan jasotako hobari guztiak interesdunak eskatu behar ditu, eta organo eskudunak ebatziko ditu.

Zerga honetan hobari bat jaso ahal izateko, eskatzaileak Udal honekiko betebeharrak fiskalean egunean egon beharko du.

Hobari guztiak urtero eskatu beharko dira, horiek ematean hainbat zergalditarako berrikuntza automatikoa aitortzen dutenak izan ezik, eta hobariaren urtean indarrean dagoen ordenantza fiskala behin betiko onartzen denean emango dira.

Eskatzaile guztiei eskaera-eredua emango zaie. Eredu hori nahitaez aurkeztu beharko dute kasu bakoitzean eskatutako dokumentazioarekin batera.

Tokiko administrazioak, ofizioz, beharrezko datu guztiak egiaztatuko ditu, eta beste erakunde batzuei eskatuko die laguntza, egiaztatzeko.

2. Definizioak:

Artikulu honetan aurreikusitako hobariak aplikatzeko, definizio hauek aplikatuko dira:

- a) Errenta: familia-unitatean jasotzen diren diru-sarrera guztien batura da, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari lotu gabeak barne. Errentatzat jotzen da oinarri ezargarriari pentsio konpentsagarriak eta aipatzen dituen urteko mantenurako ordainketak gutxitzen dizkiona pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 69. artikulua. Horretarako, paragrafo honetan aipatutako hobaria aplikatuko den aldiaren aurreko bigarren urtean lortutako errentak hartuko dira kontuan.
- b) Familia-unitatetzat hartuko da azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 98. artikuluan definitutakoa.
- c) Kontuan hartu beharreko errenta familia unitateko kide guztiek lortutakoa izango da.
- d) Ohiko etxebizitzagatik: pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ondorioetarako horrela onartutakoa (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamendua onartzen duen abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretuaren 61. artikulua).

3. Hobarien bateragarritasuna:

Hobari hauek bateraezinak izango dira elkarren artean, familia ugarientzat onartutakoak izan ezik; horiek bateragarriak izango dira, baldin eta artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzen badira.

4. Eskabideak aurkezteko epea:

Eskaera aurkezteko eperik zehazten ez den kasu guztietan, hobaria aplikatuko den urteko martxoaren 31ra arteko epea egongo da.

5. Hobari-kasuak:

5.1. Landalurrak, landaketa edo baso-populazioa naturagune babestuetan dutenak

Zergaren kuota% 95eko hobaria izango dute naturagune babestuetan dauden eta landaketa edo basoa duten landa-lurrek.

Interesdunek eskabidearekin batera landa lurak naturagune babestuetan landatu direla edo oihanak landatu direla frogatzen duen agiria edo horri buruzko beste edozein agiri aurkeztu beharko dute.

5.2. Urbanizazioko, eraikuntzako eta higiezinaren sustapeneko enpresak:

a) Baldintzak eta aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte eskabidearekin batera:

- Kasuan kasuko urbanizazio- edo eraikuntza-lanak hasteko aurreikusitako datari buruzko adierazpena.

- Enpresaren jarduera urbanizazioa, eraikuntza eta higiezinaren sustapena dela egiaztatzea. Horretarako, sozietatearen estatutuak aurkeztu beharko ditu, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatuta.

- Hobaria jasoko duen ondasun higiezina bere jabetzakoa dela egiaztatzen duen agiria, jabetza-eskituraren kopia konpultsatua, Jabetza Erregistroaren ziurtagiria edo katastroko alta.

- Hobaria jaso duen higiezina ez dela ibilgetuaren parte egiaztatzen duen agiria, sozietateko administratzailearen ziurtagiriaren bidez edo Zerga Administrazioako Estatu Agentzian sozietateen gaineko zergaren ondorioetarako aurkeztutako azken balantzearen fotokopia konpultsatuen bidez.

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken erreziboaren altaren fotokopia konpultsatua edo zerga horretatik salbuetsita egotearen justifikazioa.

b) Hobari-ehunekoa:

Ehuneko 50eko hobaria jasotzeko eskubidea izango dute urbanizazio-enpresen, eraikuntza-enpresen eta higiezinaren sustapeneko enpresen jardueraren xede diren higiezinak, obra berrikoak izan nahiz horren pareko birgaitze-lanak izan, eta ibilgetuaren ondasunen artean ez badaude.

c) Aurkezteko epea eta hobaridun aldia:

Eskaera interesatuek aurkeztu beharko dute obrak hasi baino lehen.

Hobari hori aplikatzeko epea obrak hasten diren zergaldiaren hurrengotik obrak amaitu ondorengo zergaldira artekoa izango da, betiere zergaldi horretan urbanizazio-obrak edo benetako eraikuntza-lanak egiten badira, eta inoiz ere ez hiru zergaldi baino gehiagokoa. Interesdunak, bere lursailak urbanizatzeko obregatik aipatutako hobaria izan duenak, lursail horietan higiezinak sustatzen baditu, aplikatzeko epea bost zergaldikoa izango da.

5.3. Babes ofizialeko etxebizitzak eta etxebizitza sozialak:

a) Baldintzak eta aurkeztu beharreko agiriak:

Eskatzaileak babes ofizialeko etxebizitza baten edo etxebizitza sozial baten titularra izan beharko du, eta Donemiliagako udalerrian erroldatuta egon.

Hori egiaztatzeko, babes ofizialeko edo sozialeko etxebizitzaren kalifikazioa egiaztatzen duen ziurtagiria eta etxebizitzaren titulartasuna egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko ditu.

b) Hobari-ehunekoa:

Babes ofizialeko etxebizitzek eta gizarte-etxebizitzek ehuneko 50eko hoberia izango dute ondasun higiezinaren gaineko zergaren kuota

c) Bateragarritasuna:

Hobari hau familia ugariarentzat ezarritakoekin bateragarria da, betiere bi onura fiskalen baturak kuotaren% 100 gainditzen ez badu.

d) Aurkezteko epea eta hobaridun aldia:

Eskaera haren iraupeneko hiru zergaldiak amaitu baino lehenagoko edozein unetan egin ahal izango da, eta eskatzen den zergaldiaren hurrengotik aurrera izango ditu ondorioak, hala badagokio.

Hobari honek behin betiko kalifikazioa eman ondorengo hiru zergaldietan izango du eragina.

5.4. Nekazaritza-kooperatibak eta ustiapen komunitariokoak:

Nekazaritzako kooperatiben eta ustiapen komunitarioko kooperatiben landa-ondasunek kuotan% 50eko hoberia izateko eskubidea izango dute, Kooperatiben Zerga Araubideari buruzko ekainaren 9ko 16/1997 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.

5.5. Familia ugariak:

a) Baldintzak eta aurkeztu beharreko agiriak:

Familia ugarien titularren ohiko bizileku diren etxebizitzek, baldin eta kide guztiak Donemiliagako udalerrian erroldatuta badaude, hoberia izango dute zerga honetan, betiere familia-unitateak ezarritako baldintzak betetzen baditu.

Zergaren subjektu pasiboek, hobari-eskaerarekin batera, familia ugaria direla eta familiaren errenta-maila egiaztatzen duten agiri ofizialak aurkeztu beharko dituzte.

Familia-errenta estandarizatua zehazteko, familia-politiken esparruan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko Eusko Jaurlaritzaren 154/2012 Dekretuaren 3., 4., 5. eta 6. artikuluetan araututakoa hartuko da kontuan.

Zergaren subjektu pasiboek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Hobari-eskaera, higiezina identifikatzeko.

- Higiezinaren titulartasuna egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia

- Indarrean dagoen familia ugariaren titulua, organo eskudunak emana.

- Familia-erroldatzearen ziurtagiria.

- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortenaren fotokopia, paragrafo honetan adierazitako hoberia aplikatuko den aldiaren aurreko bigarren urteari dagokiona (subjektu pasiboa aitortena aurkeztera behartuta ez badago, zerga hori arautzen duen araudiaren arabera).

- Beste etxebizitza baten titular ez izatearen zinpeko aitortena

b) Bateragarritasuna:

Hobari hau jasotzea bateragarria da babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritakoekin, betiere bi zerga-onuren baturak kuotaren ehuneko 100 gainditzen ez badu.

c) Hobari-ehunekoa:

Familia ugarien ohiko bizileku diren etxebizitzek hobaria izango dute zergaren kuotan, familia-errenta estandarizatuaren mailaren arabera, Espainiako lanbide arteko gutxieneko soldatari dagokionez.

Estandarizatutako Familia Errenta	Hobaria
2 SMI edo txikiagoa	Ehuneko 90
2 aldiz handiagoa eta 2.5 aldiz edo txikiagoa den SMI	Ehuneko 50
2.5 aldiz baino handiagoa eta 2.75 aldiz edo txikiagoa den SMI	Ehuneko 10

5.6. Izaera subjektiboko hobaria:

a) Baldintzak eta aurkeztu beharreko agiriak:

Zergaren kuota osoan hobari bat ezartzen da etxebizitza-erabilera baino ez duten higiezinatarako, betiere etxebizitza subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza bada hobariak irauten duen bitartean eta familia-unitateko kide guztiak bertan errolatuta badaude.

Hobariaren onuradun diren subjektu pasiboek ezin izango dute beste inolako higiezinik izan, beste ezein udalerritan etxebizitza-erabilera bakarrik duena, eta Donemiliagako udalerrian errolatuta egon beharko dute.

Zergaren subjektu pasiboek, hobari-eskaerarekin batera, familiaren errenta-maila egiaztatzen duten agiri ofizialak eta beste etxebizitza baten gabezia-aitorpena aurkeztu beharko dituzte, besteak beste:

- Hobari-eskaera, higiezina identifikatzeko.
- Higiezinaren titulartasuna egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia
- Familia-errolatzearen ziurtagiria.
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpenaren fotokopia, paragrafo honetan adierazitako hobaria aplikatuko den aldiaren aurreko bigarren urteari dagokiona (subjektu pasiboa aitortpena aurkeztera behartuta ez badago, zerga hori arautzen duen araudiaren arabera).
- Familia unitateak etxebizitza bakarra duela eta beste edozein udalerritan beste etxebizitzarik ez duela adierazten duen zinpeko aitortpena.

b) Hobari-ehunekoa:

	T0	T1	T2	T3
Familia unitateko kide kopurua	12.000€ ko Errenta edo txikiago	Errenta 12.000 €edo gutxiagokoa bada, 12.001€-ko errenta LGSan	IGStik gorako errenta eta 1.5xLGStik beherakoa edo berdina	1.5XSMTik gorako errenta eta 2xSMTik beherakoa edo berdina
1	%90	75%	35%	0%
2	%95	75%	35%	0%
3	%95	90%	50%	25%
4	%95	90%	75%	50%
5 edo gehiago	%95	95%	85%	75%

5.7. Eraikinen energia-ziurtagiaren arabera hobariak:

1.- Zerga honen subjektu pasiboen ohiko etxebizitzarako diren eta A motako energia-eraginkortasuneko etiketa duten ondasun higiezinak ehuneko 50eko hobaria izango dute zergaren kuotan, eta B motakoek, berriz, ehuneko 25ekoa.

2.- Energia-ziurtagiria lortzea apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuak arautzen du. Errege-dekretu horren bidez, eraikinen energia-eraginkortasuna ziurtatzeko oinarritzko prozedura onartzen da.

3.- Hobari hauetaz baliatzeko epea hiru urtekoa da.

4.- Hobari hau bateraezina izango da artikulua honetan araututako gainerako hobariekin.

5.- Zergaren subjektu pasiboek, hobari-eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Beste etxebizitza baten titular ez izatearen zinpeko aitortpena
- Higiezinaren titulartasuna egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia
- Hobaria jasoko duen higiezinaren energia-ziurtagiria.

5.8. Energia-erkidegoei lotutako higiezinentzako hobariak:

1.- Eskualde-eremuan kokatutako energia-komunitate bati lotutako higiezinaren kuotaren ehuneko 25eko hobaria ezarriko da, instalazioa amaitu eta hurrengo hiru zergaldietan.

2.- Hobari hau bateraezina izango da artikulua honetan araututako gainerako hobariekin.

3.- Zergaren subjektu pasiboek, hobari-eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Beste etxebizitza baten titularrak ez direla adierazten duen zinpeko aitortpena.

- Higiezinaren titulartasuna egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia
- Udalaren energia-komunitate batean parte hartzeagatik hobaria jasoko duen higiezinaren ziurtagiria.

16 bis artikulua.

Ez zaie aurreko artikuluan ezarritako hautazko hobaririk aplikatuko 100.000 eurotik gorako diru-sarrerak dituzten familia-unitateei.

VIII. ERREKARGUA**17. artikulua.**

1.- Egoitza erabilerako ondasun higiezinak, baldin eta errentamenduaren edo erabilera-lagapenaren ondorioz hirugarren pertsonen subjektu pasiboaren ohiko egoitza ez badira, Zergaren kontu likidoaren gainean Foru Arauak onartzen duen gehieneko errekaruari (% 50) lotuta egongo dira.

2.- Errekargu hori Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren subjektu pasiboei eskatuko zaie, eta urtero sortu eta likidatuko da, zerga horren kuotarekin batera.

Bizitegi-erabilerako ondasun higiezina okupatzailearen edo okupatzaileen bizilekua dela ulertuko da, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren sortzapen-egunean hura dagoen udalerriko erroldan hala jasotzen denean.

Errekargu hau aplikatzeko, etxebizitzaren eranskinak hartuko dira kontuan, betiere harekin batera erregistro-finka bakarra osatzen badute, eta beste erabilera edo jarduera baterako erabiltzen ari ez badira.

3.- Zergadunak aurrez eskatuta, ez da errekarua aplikatuko honako kasu hauetan:

- a. Bizitegi-erabilerako ondasun higiezinak, herri-administrazioen eta haien organismo instrumentalen jabetzakoak, eta barne modu oneko alokairuko etxebizitzak edo hirugarrenek haiei lagatako etxebizitzak eskaintza publikoan, etxebizitza libreen alokairuaren merkatuan bitartekaritza-programa publikoak gauzatzeko; adibidez, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Hutsen Programa.
- b. Udalaren lizentzia duten ostalaritza eta ostatu jarduerari atxikitako etxebizitzak, bai eta erabilera turistikoko etxebizitzak eta erabilera turistikoko gelak ere.
- c. Jarduera profesional edo komertzialetarako diren etxebizitzak, modu jarraituan eta udal-baimenarekin.
- d. Azken urtean titularra hil zaien ondasunak.
- e. Aurri-egoeran deklaratu diren edo deklaratzeko izapideak hasi dituzten etxebizitzak.
- f. Zergaren sortzapen dataren aurreko urteko azaroan eta abenduan eskualdatutako ondasunak.
- g. Etxebizitza gisa erabiltzeko diren eta alokatu diren higiezinak. Alokairuak bizitegi-erabilerakoa izan beharko du, errentamendu-kontratua

eskatuko da eta horren berri emango zaio Foru Ogasunari. Adierazitako alokairuak, gutxienez, errekgua aplikatzen ari den urtearen aurreko ekitaldi fiskalaren 9 hilabeteko iraupena izan behar du.

h. Ondasun higiezinak fisikoki elkartuta, baina erregistroan bi finka eta bi ordainagiri desberdin dituztenean. Ondasunen titularrak pertsona bera izan behar du.

i. Jaraunspen baten parte diren etxebizitzak, bi urteko epean, titularra hiltzen denetik hasita. Salbuespen hori aplikatzeko, herentzia-eskiriturak edo beharrezko agiriak aurkeztu behar dira Hiri Izaerako Lursailen Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren aitortpena aurkezteko legeak ezarritako epean.

j. Adinekoen egoitzetan erroldatutako pertsonen titulartasunekoak diren etxebizitzak. Salbuespen hau, egoitza eskuratu aurretik, egoiliarren ohiko etxebizitza zen etxebizitzari bakarrik aplikatuko zaio. Salbuespena urtebetekoa izango da, egoitzan erroldatzen den egunetik hasita.

k. Zergaren sortzapen-egunean obra handiko eraberritzearen xede diren higiezinak. Inguruabar hori Udalaren obra lizentzia aurkeztuz frogatuko da.

l. Mendetasun-egoeran dagoen ahaide baten etxean erroldatuta dauden pertsonen titulartasunekoak diren etxebizitzak, senide hori zaintzeko. Hori agiri bidez egiaztatu beharko da. Salbuespena urtebetekoa izango da, mendetasun-egoeran dagoen ahaidea etxebizitzan erroldatzen den egunetik aurrera.

m. Egoera ahul edo arrikutsuan dauden beste pertsona batzuk zaintzeko edo artatzeko prozesuetan sartuta dauden pertsonen titulartasunekoak diren etxebizitzak, baldin eta titularra etxebizitzan bizi ez dela frogatzen bada. Hori agiri bidez frogatu beharko da.

IX. SORTZAPENA

18. artikulua

1.- Zerga urte bakoitzeko urtarilaren 1ean sortuko da.

2.- Zergaldia urte naturalarekin bat dator.

3.- Kargatutako ondasunetan gertatzen diren aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoek, aldaketak gertatzen diren zergaldiaren hurrengoan izango dituzte ondorioak, eta eragin hori ez da dagozkion administrazio egintzak jakinaraztearen menpe egongo.

19. artikulua

1. Zerga honen egitate zergagarria osatzen duten eskubideen titularitatea edozein arrazoirengatik aldatzen denean, eskubide horien xede diren ondasun higiezinak zerga kuota osoa ordaindu beharko dute, Zergen Foru Arau Orokorrean jasotako eran. Horretarako, notarioek informazioa eskatuko dute eta agertutakoei ohartaraziko diete eskualdatzen den higiezinari lotutako ondasun higiezinaren gaineko zerga dela-eta ordaintzeke dauden zorrei buruz, interesdunek zergaren aitortpena aurkezteko duten epeari buruz, ondasunek zerga-kuota ordaintzean duten eraginari buruz eta, era berean, aitortpenik ez aurkezteagatik dituzten erantzukizunei buruz, epe barruan ez aurkezteagatik edo aitortpen faltsuak, osatugabeak edo zehaztugabeak aurkezteagatik.

2. Zergaren kuota solidarioki ordaindu behar dute, eta beren partaidetzen proportzioan, Zergen Foru Arau Orokorrak 35 artikulua 3 apartatua aipatzen dituen erakundeetako partaideek edo titularkideek, higiezinaren katastroan hala inskribatuta badaude. Inskribatuta ez badaude, erantzukizuna beti hainbanatuko da.

X. ZERGAREN KUDEAKETA

20. artikulua.

Zerga urtero eratuko den errolda oinarri hartuta kudeatuko da. Errolda hori ondasun higiezinaren, subjektu pasiboen eta katastro-balioen zentsuek osatuko dute, bereizita landa- eta hiri-izaera dutenen kasuan. Errolda jendearen eskueran egongo da udaletxean.

21. artikulua.

1.- Subjektu pasiboek honako hauek aitortu behar dituzte Udalean, betiere Zergaren kargapeko ondasunak Udalaren mugapean badaude, arauz finkatzen den epearen barruan:

a) Eraikuntza berriak direnean, alta aitortenak egin beharko dituzte.

b) Zerga honi lotutako ondasunen eskualdaketa gertatzen direnean, eskuratzailerak alta aitortzea aurkeztu beharko du eskualdatzea eragin duen agiriarekin batera; era berean, eskualdatzailerak baja aitortzea aurkeztu beharko du, eskuratzaileraren izena eta helbidea, mugak eta ondasunen egoera, eskualdaketa data eta zer kontzeptuekin egin den adieraziz.

Eskualdaketa "mortis causa" egintzaren bidez egin bada, oinordetzen gaineko zerga likidatzen den egunetik aurrera hasiko da zenbatzen ezartzen den epea, eta oinordekoak alta eta baja aitortenak egin beharko ditu.

c) Kargatutako ondasunei dagozkien aldaketa fisiko, ekonomiko edo juridikoen ondorioz sor daitezkeen aldaketa guztiak.

Era berean, Foru Aldundiari dagokio erreziboak egitea. Apartatu honetan aipatutako aitortenak ez aurkeztea edo ezarritako epeetan ez aurkeztea zerga urraketa arina izango da.

22. artikulua

Ondasun Higiezinaren Katastroetan jasotako datuak sartzea, baztertzea edo aldatzea (katastro-berrikuspenen, katastro-balioak finkatu, berrikusi eta aldatzearen, ikuskapen-jardueren edo altak eta jakinarazpenak formalizatzearen ondoriozkoak) administrazio-egintzat hartuko dira, eta zergaren errolda aldatzea ekarriko dute. Ondasun higiezinaren katastroetako datuei dagokien erroldan edozein aldaketa egiteko, aldeztu aurretik katastroko datu horiek ere aldatu beharko dira ezinbestean.

23. artikulua

1.- Kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta diru-bilketako ahalmenak, bai borondatezko epean bai premiamendu bidez, udal honi dagozkio, beti ere bere udal mugartean zergapeko ondasunak badaude, hurrengo 3. zenbakian xedatutakoaren kaltetan gabe.

2.- Zehazki, udalari dagokio altak eta bajak izapidetzea eta likidatzea, erroldak jendaurrean jartzea, errekursoak eta erreklamazioak ebatzea, zerga kobratzea, salbuespenak eta hobariak aplikatzea eta zergadunari zerga honen gaiei buruzko laguntza eta informazioa emateko jarduketak egitea.

3.- Foru Aldundiari dagokio, soil-soilik, lurzoruen mugaketak eta balio-ponentziak egitea eta onartzea, bai eta mugapen eta balio katastral horiek finkatzea, berrikustea eta aldatzea, eta katastroei eta zergaren erroldari atxikitako gainerako eginkizunak betetzea ere.

Udalek Foru Aldundiarekin lankidetzan jardungo dute katastroa osatzeko eta kontserbatzeko.

Kobratzekoak. Udalek 42/1989 Foru Arauko 15. artikuluko 7. eta 9. idatz-zatietan aipatutako hobari pertsonalak ezartzen badituzte, edo foru arau horretako 14. artikuluko 4. eta 5. idatz-zatietan aurreikusitako kasuetan, udalek egin beharko dituzte ordainagiriak. Era berean, Foru Aldundiari dagokio zergaren katastroko ikuskapena egitea.

42/1989 Arauaren 4. artikuluan jasotako salbuespenak eta hobariak emateko edo ukatzeko, Foru Aldundiaren alde aurreko txosten teknikoa beharko da, eta ondoren emango den ebazpena Foru Aldundiari helaraziko zaio.

24. artikulua.

Ordenantza fiskal honetako 12. eta 13. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik balio-ponentziak onartzen dituzten egintzen aurka eta katastro-balioen aurka aurkezten diren errekursoak eta erreklamazioak Zergen Foru Arau Orokorreko 229. artikulutik 246. artikulura xedatutakoaren arabera arautuko dira, eta Arabako Foru Aldundiak izango du berraztertze errekurtsua ebatzeko eskumena. Errekurtsu eta erreklamazio horiek jartzeak ez du etengo egintzen betearazte-indarra.

25. artikulua

1.- Errolda Foru Aldundiak egingo du, eta Udalari igorriko dio.

2.- Agiria jaso ondoren, Udalak jendaurrean jarriko du 15 egunez, doakien zergadunek aztertu eta, hala balegokio, bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak egin ahal izan ditzaten.

3.- Udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko toki-entitateak dituzten udalek jendaurrean ikusgai jartzeko eguna jakinarazi beharko diete toki-entitateetako lehendakariari, gutxienez bi egun lehenago, ohi bezala herritarrei jakinaraz diezaieten.

26. artikulua.

1.- Jendaurreko erakustaldia amaitu eta erreklamazioak ebatzi ondoren, emaitzaren ziurtagiria bidaliko zaio Foru Aldundiari, onar dezan.

2.- Onartu ondoren, Foru Aldundiak ordainagiriak egingo ditu, eta udalera bidaliko ditu bilketari ekin diezaioten.

XEDAPEN GEHIGARRIA

5 f) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, eta Espainiako Estatuaren eta Egoitza Santuaren arteko gai ekonomikoei buruzko 1979ko urtarrilaren 3ko Akordioa indarrean dagoen bitartean, honako ondasun hauek salbuetsita egongo dira:

a) Elizkizunetarako erabiltzen diren tenplu eta kaperak eta, halaber, pastoral jarduerarako erabiltzen diren areto edo eraikin erantsiak.

b) Apezpikuen, kalonjeen eta arimen sendabidea duten apaizen egoitza.

c) Bulegoetarako, elizbarrutiko kuriarako eta parrokiako bulegoetarako erabiltzen diren lokalak.

d) Elizbarrutiko kleroa eta erlijiosoa prestatzeko mintegiak eta eliza-unibertsitateak, eliza-diziplinari dagozkion irakaskuntzak ematen badituzte.

e) Ordenetako etxe edo komentuak, kongregazio erlijiosoak eta bizitza sagaratuko institutuak nagusi diren eraikinak.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.

Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga arautzen duen 42/1989 Foru Arauaren xedapen iragankorretan jasotako arauak udalerrri honetan aplikatuko dira eragiten dioten guztian.

Bigarrena.

Toki Ogasunak Aldatzen dituen martxoaren 31ko 12/2003 Foru Araua indarrean jartzean aitortutako ondasun higiezinaren gaineko zergaren onura fiskalak, horiek baliatzeko kasuak Foru Arau horretan jasota badaude, mantendu egingo dira, eta ez da beharrezkoa izango, eskatu egiten badira. Zerga horretan aitortutako onura fiskalak, zerga horretan aitortzen direnak, iraungi arte mantenduko dira, onura horiek baliatzeko kasuak ordenantza fiskal honetan jasotzen ez badira, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 42/1989 Foru Arauaren 4. artikuluko k) idatz-zatian aurreikusitako salbuespena izan ezik, hura indarrean sartzean iraungiko baita.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta bere eranskina bertan adierazten den egunean onartu ziren behin betiko, eta 2021eko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.

I. ERANSKINA

Karga-tasa ehuneko 0,177 izango da hiri-ondasunen kasuan, oro har, industria-erabilerari aplikatuko zaion ehuneko 0,307ko tasa bereizia izan ezik. Salbuespen hori ez zaie aplikatuko nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerarako biltegiei (211), ehuneko 0,177ko karga-tasa orokorra aplikatuko baitzaie.

Industria-erabilerako hiri-ondasunei aplikatu beharreko tasa bereizia katastro-araudian definitutako erabileren arabera aplikatuko da, gehitutako tasa aplikatuko den gutxieneko katastro-balioaren arabera.

Tasa hori 2. taldeko (industrial) balio handieneko hiri-ondasun higiezin ehuneko 10ari soilik aplikatuko zaio, gutxienez 50.000,00 euroko katastro-balioa badute.

Higiezinak erabilera bat baino gehiago dutenean esleituta, eraikuntza edo mendequotasun nagusiaren erabilerari dagokion tasa aplikatuko da.

Hiri-ondasun higiezin bakoitzaren erabilera higiezin katastroak urtero ematen duen katastro-errolan sartzen da. Katastroaren deskribapena eta identifikazio-kodea aurreko taulan daude jasota, bai eta 51/2014 Foru Dekretua ere, urriaren 14koa, Diputatuen Kontseiluarena, hiri-ondasun higiezin katastro-balioa zehazteko lurzoruaren eta eraikinen balorazio-arau teknikoak eta balioen koadro-markoa onartzen dituenak.

Erabilerak identifikatzeko, lehen zehaztu ez den guztian, katastro-balorazioaren arloan ezartzen diren arauak beteko dira.

- Landa-izaerako ondasunetarako karga-tasa 0,307 ehun.
- Ezaugarri bereziak dituzten ondasunentzako karga-tasa ehuneko 1,30ekoa izango da.

Diru-bilketa aldia: Urte bakoitzeko bigarren sei hilekoa.